

ERABAKIA, 2025eko ABENDUAREN 2a, IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA UPV/EHUko IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO BEHARRAK BETETZEKO LAN POLTSA OSAGARRI ZABALDU/BERRIETAN ETA DOKTOREEN LAN POLTSETAN SARTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAA (ERANSKINEAN AIPATUTAKO POLTSAK).

Lehenengoa.- 2025ko uztailaren 02ko Erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaiak lan-poltsa zabaldu/berrietan sartzeko.

Bigarrena.- Aipatutako lehiaketan eskabideak aurkezteko epea 2025ko uztailaren 22an amaitu zen. Hala ere, Errektorearen Erabakiaren bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu zen, 2025ko uztailaren 24 arte.

2025ko urriaren 08ko erabakiaren bidez doktoleen izengaien lan-poltsa zabaldu/berrietan sartzeko lehiaketaren onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda eman zen argitara (eranskinean aipatutako poltsak), erreklamazioak aurkezteko eta errakuntzak zuzentzeko 2025eko urriaren 22ko bitarteko epea zabalduz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko (otsailaren 3ko EHAA); Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 31ko Erabakia, UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda egin eta kudeatzeko Araudia onartzen duena (2022ko maiatzaren 18ko EHAA); deialdia egiten duen 2025ko urriaren 02ko Erabakia; eta gainerako arau orokorrak eta horiekin bat datozenak.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko emandako erabakiak.

Hirugarrena.- Ordezkapenak egiteko izangaiak lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duen 2025ko uztailaren 02ko Erabakiak ezartzen duenez, errakuntzak zuzentzeko eta behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik, zerrenda hori behin betiko bihurtuko dela. Bestalde, zerrenda argitaratu eta hilabeteko epean horren aurka egiteko berraztertze errekurtsoa aurkez

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4	Data / Fecha	02/12/2025 10:08:13
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EFREN ARESKURRINAGA MIRANDONA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4	Orrialdea / Página	1/3



daitekeela ere xedatzen du edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke hilabete biko epean.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea irakasleen ordezkapenak egiteko DOKTOREEN eta LAGUNTZAILEEN izangaien lan poltsa zabaldu/berrietan sartzeko lehiaketa publikoan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda (eranskinean aipatutako poltsak). Lehiaketarako deialdia 2025ko uztailaren 02ko Erabakiaren bidez egin zen.

Bigarrena.- Argitaratzea erabaki hau Irakasleen eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taulan eta Unibertsitatearen lan-eskaintzen atarian.

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau webgunean argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 123. artikulua eta hurrengoak).

Leioa, 2025eko abenduaren 2a.

ERREKTOREA

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2025eko urtarrilaren 30ko Erabakia, 2025/02/19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Efren Areskurrinaga Mirandona

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4	Data / Fecha	02/12/2025 10:08:13
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EFREN ARESKURRINAGA MIRANDONA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4	Orrialdea / Página	2/3



ERANSKINA

SAILA	JAKINTZA-ARLOA	PROFIL ZEHATZA	POLTSA-MOTA	DEIALDIAREN ORDENA	DEIALDI-MOTA
Analisi Ekonomikoa	Ekonomia Analisiaren Oinarriak	Ez dagokio	Osagarria	2	Zabaldua
Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia eta Farmazia Teknologia	Ez dagokio	Doktorea	6	Zabaldua
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza	Ingeniaritza Kimikoa	Ez dagokio	Osagarria	13	Zabaldua
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza	Ingeniaritza Kimikoa	Ez dagokio	Doktorea	14	Zabaldua
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea	Ez dagokio	Osagarria	43	Zabaldua
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea	Ez dagokio	Doktorea	44	Zabaldua
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	Zuzenbide Zibila	Ez dagokio	Doktorea	47	Zabaldua
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	Zuzenbide Zibila	Ez dagokio	Osagarria	48	Zabaldua

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4		Data / Fecha	02/12/2025 10:08:13
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.		Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzailea / Firmante	EFREN ARESKURRINAGA MIRANDONA			
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2LAMMAZ637PJ2J7SKZJ7L4		Orrialdea / Página	3/3

